

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA POESIA 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

Udaberri isilean

Ainhoa Andueza San Miguel

Haize bustia
lore erauziak
neurtu gabeko segundoetan.
Isilik doaz
egunerokotasunetik ihesean dabilzan
lore-hosto atenporalak.

Ertzak zorrotzegiak sentitzen dira
loratzea ahaztu zaion
lore zimelduan.
Min ematen dute,
min ematen du
bigundu nahi eta ezinak.

Udaberri isilean entzuten da
denboran itotzen ari den pentsamenduaren oihartzuna.
Udaberri isilean loratzen dira
izenik gabeko loreak
eta udaberriak badaki
ertzekin loratzea besterik ez dutela.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA POESIA 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

Ortzemugari galdezka ari zaion lore-hostoak
badaki zein den bidea
zein norabidea
erantzunek galdera aurkitzen dutenean.